



“Egun inor ez da erredakzio kontseiluaz mintzo, administrazio kontseiluaz baizik”

Mariano Ferrer | Buru-kazetaria

Jubilatua bai, erretiratu ez.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Kasualitatez, ez duzu jakingo noiz bukatuko den konfliktu baskoa, ezta?

Lizarrako prozesua behin-betikoa zela sinetsi nuen, Loiolakoarekin berdin, eta eskarmentatuta egoteak ez du esan nahi sinesteari utziko diodanik. Ezker abertzaleak berriz huts egiteko aukera duela uste duzu? Haluzinagarria irudituko litzaidake.

Bildu, sortu, eta jaioko dira berriak!

Puntu batera helduta, gauzak egiteko modu bakarra gauzak egitea da. Dena irabazi ezin duzunean, galdu beharrekoa lehenbailehen galtzea hobe. Ezker abertzaleak ezin du pentsatu bakea, iritzi publikoa, erakundeak eta *madre superiora* irabaziko dituenik.

Madre superiora ez da Iñaki Anasagasti izango, ezta? Badakizu, “tipo jasangaitz, sofista profesiona, eta datu manipulazilea” zarela dioen hori.

Ez dakit zer pasa zaion. Lehen, kongresuko diskurtsoak nire artikulatuak aipatuz bukatzen zituen. Auskalo, ez zidan barkatuko EAJren militantziak ezker abertzalekoaren gaitasuna izan balu, herri honek beste kupel bateko sagardoa edango lukeela esan izana.

Independentzia garesti ordaintzen dela, amigo!

Medioak, gizarteari injustizien aurrean bere burua defendatzeko tresnak eman beharrean, korporazio teknopolitikoekonomiko bihurtu dira. Nola defendatuko gaituzte sistemaren atzaparretatik sistemaren parte badira?

Tontotzat gauzkatela diozu?

Sistemaren funtzionamenduaren premiak asetzen dituzte eta bost axola zaie gainontzekoa. Kazetariak kazetaritzaren duintasunaren zentzua galdu du. Egun, inor ez da erredakzio kontseiluaz mintzo, administrazio kontseiluaz baizik.

Ez esan erredakzioaren administrazioetik administrazioaren erredakziora pasa garela...

Prekariatateak ofizioaren deskualifikazioa dakar. Soldata irabaziz gizartea zerbitzetik bere lana enpresa bati saltzen dion elementua izatera pasa da kazetaria. Horregatik dauzka gu sorpresarik gabeko kazetak, eta horregatik gertatzen dira gertatzen direnak.

Leteren “periodikua letuz ilustratzen gera” bukatu dela, alegia.

Adierazpenez jositako egunkariak dauzkagu. Gertaera bera baino garrantzitsuago bihurtu dira gertaeraren inguruko erreakzioak. Zergatik ez dira gertaerak ikertzen? Noiz ohartuko gara ia eguneroko titular nagusia politikari baten adierazpena dela?

Rosiren kioskoa itxi zutenetik...

Entzuleei ez diet sekula esan “halakoa da mundua, nik hala kontaktatzen dizuedalako”. Alderantziz, eszeptikoak izan eta euren koa-droa marrazteko esaten nien. Buru-kazetaritza zen. Orain ordea, dena da presa, momentua, multimedia, eta gauza bera hama-zortzi modutan esatea. ■

